

Whatsart_DSS2016EU

Bigarren atalaren memoria

2016ko Ekaina



Kultiba garatzen ari den WHATSART_DSS2016EU proiektuaren lehen atalaren memoria.

Amorebieta-Etxano, **2016ko Ekaina**.

KULTIBA Koop. Elk. Txikia

www.kultiba.net // www.kultiba.org

info@kultiba.net

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Proiektuaren arduraduna::

Aintzane Lekunberri

aintzane@kultiba.net

635 751 687

Índice de la propuesta

SARRERA	4
EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA	6
EKINTZEN EMAITZA AURKEZPENA: ERRONKA ETA DIZIPLINA	20
Erronka.....	21
Diziplina.....	23
ERABILITAKO BALIABIDEAK	24
Espazioak.....	25
Komunikazio tresnak.....	26
ONDORIOAK	28

SARRERA

Ondorengo lerroetan, WHATSART proiektuaren aktibazio fasearen inguruko txostena aurkezten dugu.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, 4 atal nagusitan banatzen da:

- Ekintzen deskribapen zehatza
- Ekintzen emaitza aurkezpena: erronka eta diziplina
- Erabilitako baliabideak: espazioak eta komunikazioa
- Ondorioak

EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA

6

Proposamenean planteatu bezala, proiektuaren fase honek, bi erronka edo helburu nagusi izan ditu: alde batetik, sorkuntza prozesuaren bitartez gizarteratu nahi den **mezua definitzea** eta honetarako erabiliko den **diziplinaren finkatzea**.

Helburu hauen lantzerako bi ekintza mota ezberdin eraman dira aurrera. Alde batetik tailerrak deitu ditugun ekintzak eta bestalde laborategiak deiturikoak.

Tailerrak: Guztira 3 garatu ditugu eta Kultibako lan taldeak dinamizatuak izan dira. Hauen energia, taldearen kohesioa lantzerako, mezua eta erronka definitzera egon da bideratuta.

Laborategiak: Diziplina ezberdinetako 3 garatu dira. Hauen garapena eremu bakoitzeko espezialistekin eraman ditugu aurrera; [dantza garaikidea-Idoia Zabaleta] [ikus-entzunezkoa-Ubiqa] [arkitektura-Maushaus]

Denboralizazioari dagokionez, ekintzak mota biak tartekatu dira.

Jarraian ekintza bakoitzeko balorazio fitxak aurkezten ditugu, tailerren kasuan balorazio fitxaz gain, tailerren dinamizazio egitura ere aurkezten da.

SAIOA:

TAILERRA 1 EIBAR

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

1. Taldea elkar ezagutzea
2. WhatsART zer izango den azaltzea
3. WhatsART lehen erronkak adierazi
4. WhatsART datak adostea
5. WhatsART izango duen irudia diseinatzea

SAIOAREN EGITURA:

- Elkar ezagutzeko dinamika
- Zer da niretzat WhatsART, zer espero dut
- Nondik natorren, Gipuzkoako errealitatea ezagutu
- Logoa irudikatu

GARAPEN DATA:

19/03/2016

ORDUTEGIA:

10:30 – 13:30

TOKIA:

Eibar

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

22

PROFILEN DESKRIBAPENA:

Geografikoki puntu ezberdinetako pertsonak izan dira saioan. Gehiengoak neskak izan dira.

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Planteatutako helburuak bete genituen.

METODOLOGIAREN EGOKITZAPENA:

Ona. Gazteek gustura hartu dute beraiek protagonista izatea eta eskertu dute guk dinamikak proposatzea beraien ideiak eta erronkak lantzeko.

LORTUTAKO EMAITZAK:

Elkar ezagutzeko planteatu dugu tailerra. Hasieran bakoitzak bere taldeetan zeuden eta bukaeran nahastuta bukatu dute. Gipuzkoako errealitate ezberdinak ezagutzeko balio izan du tailerrak eta baita ere WhatsART proiektuaz espero dutena jasotzeko.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Lehen eguna ondo joan da. Taldeari erritmoa hartzeko balio izan digu landutako planteamenduak. Talde autonomoa da eta beren ideiak lantzeko talde dinamikak gogoko dituzte.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Gustura egon dira lehen egun honetan. Azkar pasatu zaie goiza eta jende berria ezagutzea gustatu zaie.

OHARRAK

SAIOA:

LABORATEGIA 1:HERNANI

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

6. Talde konfiantza landu
7. Gorputzak mugimenduaren bitartez adierazteko duen gaitasuna frogatu

SAIOAREN EGITURA:

- Idoia Zabaletaren aurkezpena
- Munduaren bibrazioa
- Talde bozgorailua
- Harrien bidea
- Hariaz lotuta
- Bikoteka egindako mugimendu jokoak

GARAPEN DATA:

16/04/2016

ORDUTEGIA:

10:30 – 13:30

TOKIA:

Hernani

10

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

35

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Laborategian lantzeko prestatuko helburuak bete dira.

METODOLOGIAREN EGOKITZAPENA:

Hasieran gazteak lotsati agertu dira baina Idoiak azkar sartu ditu dinamikan berak planteaturiko eskema jarraituz. Bukaeran jende aurrean antzezteko gazte batzuk lotsatu dira eta ez dute atera nahi izan.

LORTUTAKO EMAITZAK:

Tañidean konfiantza sustatzea, disziplina frogatu eta honek dituen aukerak bizi.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Kultiba: balorazio positiboa. Oraindik taldeak ez zuen konfiantza handirik eta zentzu honetan oso baliagarria izan da laborategia.

Idoia Zabaleta: Gustura egon da gazteekin. Nortasun handiko taldea.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Gustura egin dira gorputzak aurkezten dituen aukerak aztertzen. Agian dantza gehiago egingo dutela pentsatu izan zuten hasiera batean.

SAIOA:

TAILERRA 2: BEASAIN

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

8. WhatsART proiektuan landuko den erronka edo ideietan sakontzea

SAIOAREN EGITURA:

Berotze eta esnatze dinamika

Erronka posibleen batzea "Braind storming-a" (maila kuantitaiboa)

Ideien sakontzea taldeka. Bakoitzak interersgarri ikusten dituen hirurak landu.

Ideien lehentzea. (maila kualitatiboa)

3 erronka posibleen aukeraketa.

GARAPEN DATA:

ORDUTEGIA:

TOKIA:

23/04/2016

10:30 – 13:30

Beasain

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

19

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Gazteek zenbait erronka edo ideia lantzeko atara dituzte. Hiru ideia nagusi geratu dira hurrengo tailerrean lantzeko.

METODOLOGIAREN EGOKITZAPENA:

Eduki asko landu beharreko eguna izan bada ere, aurrera eramateko planteatutako dinamikak, gazteak lanean gustura egoteko aukera eman du. Metodologiaren arrakasta bi elementutan egon dela esan daiteke; alde batetik bakoitzak nahi dituen gaiak soilik jorrazteko aukera egon dela eta bestalde taldeetako partaideak aldakorrak izan dira momentu guztian.

LORTUTAKO EMAITZAK:

Egun honetan ideia eta erronka ezberdinak landu ditugu sorkuntza faseari begira. Emaitzak memoriaren hurrengo puntuan aurkezten dira.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Espero baino hobeto joan zen goiza. Oso dinamikoak dira gazteak eta parte hartzeko ohitura dute.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Askok aurreratu dela adierazi zuten. Azkar joan zitzaizen goiza dinamikan ezberdinekin.

OHARRAK

SAIOA:

LABORATEGI 2: TOLOSA

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

9. Hirigintzak eta hirien konfigurazioak gure bizitzetan duen eragina aztertzea
10. Gazteek hiri eta herrietan zer jarriko luketen proposamen ezberdinak lantzea

SAIOAREN EGITURA:

- Aurkezpena
- Gazteek herri eta hirietan zer aurkitu nahi duten aztertu
- Herritik ideia lortu ibilbide bat eginez
- Ikusitako espazioetatik bat aukeratu eta proposamenak landu
- Aukeraturiko proposamena eraiki

GARAPEN DATA:

7/05/2016

ORDUTEGIA:

10:30 – 14:00

TOKIA:

Tolos

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

13

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Gazteek ideia ezberdinak aukeratu ahal izan zituzten. Hauetariko asko jadanik landutako ideia eta erronkekin erlazio izan dute.

LORTUTAKO EMAITZAK:

Gazteek Tolosako inguru batean faltan botatzen duten eraikuntza baten proposamena egin zuten eta maketa prestatu.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Kultiba: Oso dinamikoa izan zen eta gazteek beren iritziak bota ahal izan zituzten eta baita sortu ere mapa batean ikusi ahal izateko.

Maushaus: Gustura gazteekin. Denboraz justu geratu izan da laborategia eta azken zatian laburtu behar izan dute.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Labur geratu zitzaizen saioa eta maketa egin zen arren ez zuen denbora geratu ordenagailu bitartez muntaketa egiteko.

OHARRAK

15

SAIOA:

LABORATEGI 3: DONOSTIA

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

11. Audiobisualaren aukerak ezberdinetan sakondu
12. Tresna eta app ezberdinak frogatu eta praktikatu
13. Lehenengo lan txikiak sortu

SAIOAREN EGITURA:

GARAPEN DATA:

21/05/2016

ORDUTEGIA:

10:30/13:45

TOKIA:

Donostia

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

8

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Gazteek app ezberdinekin frogatzeko aukera izan zuten. Tresna berriak frogatzeko aukera izan zuten.

LORTUTAKO EMAITZAK:

Gazteek ariketa ezberdinak egin zituzten ikus entzunezkoaren inguruan.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Ona, talde oso jatorra eta azkar sartu ziren lanean.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Hasierako zati teorikoa askok bazekiten ikastetxeetan ikus entzunekoa eman dutelako. Egindako ariketak gustuko izan zituzten, taldeko egitean oso dinamikoak izan ziren.

OHARRAK

SAIOA:

TALLER 3: IRUN

A ATALA: GARAPEN AURREKOA

HELBURUAK:

Sorkuntza fasean irudikatuko den erronka definitu eta erabiliko den diziplina artistikoa finkatu.

SAIOAREN EGITURA:

Aurkezpena +esnatzea

3 erronka posibleen sakontzea: aurkezpena

Erronkaren erabakitze asanblada eta idaztea

Bazkaria

Diziplinaren aukeraketarako elevator pitch

Asanblada aukeraketa: diziplina eta ezaugarriak

Itxiera

GARAPEN DATA:

04/06/2016

ORDUTEGIA:

10:30-13:30 / 15:00-17:00

TOKIA:

Irun

B ATALA: GARAPEN AONDORENGOA

PARTE HARTZE KOPURUA:

9

HELBURUEN BETETZE MAILA:

Ona, erronka definiturik eta arte diziplina erabakita .

LORTUTAKO EMAITZAK:

Erronka definituta eta arte diziplina definiturik.

DINAMIZATZAILEEN BALORAZIO OROKORRA:

Gustura. Oso talde jatorra eta parte hartzeko gogoekin.

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA:

Oso gustura egon ziren, nahiz eta egun oso izan ez zitzaien luzea egin saioa. Proposatu ekintzak egokiak izan ziren eta beren ekarpen propioak egiteko espazio izatea oso ondo ikusi zuten.

OHARRAK

Gazteekin lantzen diren proiektuetan kontu handi izan behar da aukeratzen diren datetan. Azkenean azterketak eta ikasturte bukaerako jaialdi zein ekintzak direla eta parte hartzea espero baino baxuagoa izan da azken laborategi honetan.

EKINTZEN EMAITZA AURKEZPENA: ERRONKA ETA DIZIPLINA

20

Erronka

Ekintza fixxetan azaldu bezala, Beasainen garatutako bigarren tailerrean, erronka posible ezberdinak irten dira, beraien inguruko gogoetarako dinamika espezifikokoak garatuz,:

- ✓ Giza eskubideen Urraketa
- ✓ Gazteen Sare sozialekiko menpekotasuna
- ✓ Zero Waste: ingurumena eta kutsadura.
- ✓ Euskal kultura eta euskararen erabiltzea.
- ✓ egungo hezkuntza sistema
- ✓ Matxismoa eta heteronormatiba.
- ✓ Jaiotako lurraldeak finkatzen dituen mugak.
- ✓ Giza eskubideak=Animali eskubideak
- ✓ Edertasunaren inguruko kanon eta prototipo inposaketa.

Gai hauetatik hurrengo hirurak aukeratu dira saioan azken tailerrean sakontzeko:

- **Hezkuntza sistema:** "Hezkuntzak ikasten irakasten digu ez bizitzan zehar beharrezko izango ditugun gaitasunak lortzen. Hezkuntza sistema honek ez gaitu kritiko egiten, men egiten erakusten digu".
- ✓ **Heteronormatiba eta Matxismoa:** "Lehen momentutik etiketei lotuta gaude, pertsonak heterosexualak garela aurre-suposatzen da, beste aukerak izanik "normaltasunetik" kanpo daudenak. Matxismoari dagokionez, Mikro matxismoetara ohituta gaude bidezkoa edo berdintasuna den pentsatu gabe. Eta bizitza horrelakoa izan beharko ez litzatekeelakoan, oihuka gure eskubideak aldarrikatzen ditugun ahotsa kentzen digute"
- ✓ **Jaiotako lurraldeak finkatzen dituen mugak:** " jaiotzen garen herrialdearen arabera, gure aukerak ezberdinak dira. Herrialdez aldatzen dugun momentuan, beste arraza edo erlijioetakoak bazara, munduko beste toki batean jaiotzen bazara, azpiko sentiaraziko zaituzte. Lehen aldiz begiak irekitzen dituzun tokikoa izango bazina eta ez pertsona. Eskubide gutxiago izango bazenitu bezala, zure azalaren kolorearen arabera. Banatzen gaituzten mugak paper bateko lerroak baino gehiago izango balira bezala".

Hiru erronketako batean zentratzea, oso zaila ikusi du taldeak. Gauzak honela hiruren artean egon daitekeen lotura topatzea erabaki dute. Lan hau egin ondoren, gizarteratzeko erabaki den mezua edo erronka hurrengoa da:

Gizarte kontrolatu eta manipulatu baten menpe bizi gara: Jaiotzen garen unetik begiak benda batekin estaltzen dizkigute begiak, interesatzen diren gauza bakarrik erakutsiz. Jokaera honekin, pertsona estandarizatuak eta kritikotasuna galtzen duten pertsonak lortuz. Hezkuntza sistema, komunikazio medioak, etab. gizarte hau kontrolatzen duten botere horren parte bihurtzen dira”.

Diziplina

Erronkaren sozializatorako arte plastikoak aukeratu dira diziplina bezala. Arte plastikoen barne, Pintura diziplina nagusi izan arren, elementu ezberdinak sortzea beraien gainean margotzeko aurre ikusten da.

Idea hirian zehar pintura ezberdinak ustea mezu ezberdinak transmititzeko da eta guztiak ikusi ondoren mezu orokorra jaso ahal izatea. "Irudien mapa" sortu.

Diziplinaz gain, prozesuak ezaugarri konkretu batzuk izatea nahi da:

- Zerbait iraunkorra sortzea.
- Landuko den hiri edo herrian integratua
- Work in Progress. Prozesua berez ere ikustaraztea.
- Momentu konkretuetan publikoak parte hartu ahal izatea prozesuan.

Goian planteatutakoa, gazteentzat "Ideala" den arren, osotasunean posible egitea zaila izan daiteke arrazoi ezberdinengatik: espazio publikoaren interbentzio eta okupazioa, baimenen tramitaziorako epeak, klimatologia, prozesuaren iraupena elementu ugari egiteko..

Hala ere, Kultibatik posible ditugun bide guztiak landuko ditugu, gazteek amestu dutena egiten denetik ahalik eta hurbilen egon daiten.

Mezu eta diziplina landuta izanda, prozesu hau aurrera eramateko ezaugarriak dituzten artista ezberdinekin jarriko gara kontaktuan, beraien proposamenak jasotzeko eta aukeraketa egiteko.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

24

Espazioak

Proiektuaren kaptazio faseak udal ezberdinetako gazteria teknikariek harremanak lantzea ekarri digu. Kasu batzuetan harremana informazio aldaketan zentratu da soilik eta beste kasu batzuetan komunikazio iraunkor bat mantendu da.

Gazteen jatorria eta harreman iraunkorra izan dugun udalerriak kontutan hartuta, aldagai bi hauekin, herri ezberdinek aukeratu dira ekintzak aurrera eramateko.

Fase honetan Whatsart proiektua hurrengo herrietatik pasatu da:

- TAILERRA (Taldearen elkar ezagutza eta proiektura lehen hurbilketa): PORTALEA KULTUR ETXEA. **EIBAR**
- LABORATEGIA(dantza eta mugimendu laborategia): LA MILAGROSA KAPEREA. **HERNANI**
- TAILERRA(Erronkaren lantzea) IGARTZA JAUREGIA. **BEASAIN**
- LABORATEGIA(arkitektura) GAZTE TOPAGUNEA. **TOLOSA**
- LABORATEGIA(ikus entzunezkoa) CASARES TOMASENE KULTURETXEA. **DONOSTIA**
- TAILERRA (Erronka eta diziplinaren definitzea)MARTINDOZENA GAZTE LEKUA. **IRUN**

Komunikazio tresnak

Kanpora begirako komunikazioari dagokionez, bi kanal ezberdin izan ditugu.

- **Hedabideetan argitalpenak:** Herri eta eskualdetako hedabide ezberdinek tailer eta laborategiei buruzko informazioa idatzi dute. Jarraian argitalpenetara link-ak errazten ditugu.

Página web Gobierno Vasco. 2/06/2016.

El último laboratorio de 'WhatsART' se celebra este fin de semana en Irun

http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/nota_prensa/2016/el-ultimo-laboratorio-de-whatsart-se-celebra-este-fin-de-semana-en-irun/

Ataria, 07/05/2016

Hirigintzaz hausnartu dute Tolosan egindako WhatsArt egitasmoaren laborategian

<http://ataria.info/tolosa/1462641241225>

Diario Vasco, 22/04/2016

El proyecto 'Whats ART' de DSS2016 llegará a Beasain el próximo martes

<http://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/201604/22/proyecto-whats-dss2016-llegara-20160422001027-v.html>

Diario Vasco, 21/04/2016

Participativa sesión en La Milagrosa dentro de la iniciativa 'WhatsArt'

<http://www.diariovasco.com/buruntzaldea/201604/21/participativa-sesion-milagrosa-dentro-20160421003150-v.html>

Goierri Tebista 23/04/2016

Hirigintzaz hausnartu dute Tolosan egindako WhatsArt egitasmoaren laborategian

<http://www.gitb.eus/azken-berriak/8403-whats-art-gizarte-eta-arte-uztartzen-duen-proiektua-beasainen>

- **Sare sozialak:** Fasearen berri emateko Twitter eta Instagram erabili ditugu. Nahiz eta Kultibatik sareen arduradun bat egon, gazteak nahastu ditugu honen kudeaketan. Ekintza bakoitzeko arduradunak aukeratu direlarik partaideen artetik, edukiak beraiek sareetan mugitu ahal izateko. Nahiz eta honek kasu batzuetan idatzitakoaren kontrola galtzea suposatu duen, ordea dinamikotasuna eman dio eta gazteak atal honen partaide ere sentitu dira.
- **Tailer eta Laborategietako bideoak:** WhatsART proiektuaren barnean garatu diren tailer eta laborategi guztiak grabatu egin ditugu prozesua ere erakutsi beharreko zerbait delakoan. Laburpen bideo bakoitzak bi minutu erdi inguruko iraupena dute eta saio ezberdinetan parte hartu duten gazteek bere esperientzia partekatzeko aukera izan dute. Momentu honetan DSS2016EU-ko komunikaziotik eskatutako moldaketak direla, laster bidaliko dira falta diren bideoak DSS2016EU-ko Youtube kanalean erreproduzio tarte propio bat izateko.

Barnera begirako komunikazioari begira, taldearen komunikazio guztiak WhatsApp talde batean bitartez eman da. Proiekturako tresna egokia dela esan behar dugu, hasieran helbide elektronikoa erabiltzeko saiakera egin genuen baina gutxi batzuk bakarrik erabiltzen zuten.

ONDORIOAK

-

Parte hartzeari dagokionez, pozik gaude WhatsART-ek izan duen parte hartze mailarekin. Hasiera batean proiektuak adierazten genituen baino gazte gehiagok izena eman zuten. Momentu horretan hartu genuen erabakia, printzipioz gazte guztiak barneratzearena, egokia izan zen denbora joan ahal eta beste konpromiso batzuk izan dituzten heinean zenbait gaztek taldea utzi dutelako. Egia da, hasierako tailerretan azkeneko tailer eta laborategian baino parte hartzea handiagoa izan zela, batez ere ikasturte bukaerarekin erlazioa duten azterketa eta ikasturte bukaerako ekintzekin topo egin dugulako. Ala ere, proiektuan parte hartu duten gazte taldeek konpromiso maila altua erakutsi dute eta bada hamahiru eta hamasei gazte bitarteko talde bat sorkuntza fasean parte hartzeko gogoak erakutsi duena.

Gazteek gehien ezkerdu izan duten gauzetariko bat, tailer eta laborategietan erabilitako **metodologia** izan da. Talde aktibo eta parte hartzaile bat izanik, gustuko hartu dute proiektuak dinamika eta jarduera irekiak erabili izana haiek izan direlako proiektuak hartu duen norabidea zehaztu dutenak. Taldeak badu artearekiko sentikortasun berezia eta oso parte hartze aktiboa erakutsi dute laborategietan zehar. Modu oso positiboan harritu gaitu tailerretan egindako eztabaidatan akordioetara heltzeko erakutsi duten erraztasuna.

Irunen egindako azken tailerrean egindako itxieran, oso modu positiboak **baloratu** izan dute **gazteek** momentura arte garatutako lana. Proiektu polita eta indartsua egiteko aukera polita sortu izan dute gipuzkoar gazteek.

Kultibatik oso pozik gaude egindako lanarekin. Hasiera baten egindako proposamena interesgarria ikusten bagenuen ere, paperetik errealitatera eramatea sarri pausu zaila izaten da. Kasu honetan prozesua nahiko fidel mantendu da proposamenari eta oso pozik gaude proiektuak momentura arte izan duen emaitzarekin. Gogo handiz gaude sorkuntza fasetik zer aterako den ikusteko.

Kultiba



KULTIBA Koop. Elk. Txikia

www.kultiba.net // www.kultiba.org

info@kultiba.net

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)